

Zangoza / 2020

KULTUR AGENDA

abendua



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



AYUNTAMIENTO DE
PALACIO DE LAS REINAS
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Gomendatzen da lehentasunik ez duten kudeaketak aurrez aurre ez egitea oraingoz, 948 870 251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera posta bat bidaliz. Goizez, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara, eta arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara, asteartetik larunbatera

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeako arreta ordutegia aurrez aurreko kudeaketa administratiboak eta bisitak egiteko: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara. 12:00etatik 13:00era 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea eta Erakusketa Aretoa bisitatzeko ordutegia honako hau da: asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta igandeetan 12:00etatik 14:00etara. 19:00etatik 20:00etara 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.

Abenduaren 24an (arratsaldean), 25ean, 31n (arratsaldean), eta urtarrilaren 1ean eta 6an, Kultura-etxea itxita egonen da.

-Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu.

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: Abenduaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Tfnoa: 948 870 251

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoako txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 18:00etatik 18:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako. **Tfnoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 4koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.



Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera



ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

El Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunaz hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gunea bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

KULTUR AGENDA

abendua



- 1 As Erakusketa. "El dios de los inocentes"
(Abenduaren 13a bitarte) 4. orr.
- 2 Az
- 3 Og
- 4 Os Nafarroaren Eguna. Kontzertua: "3 en Diálogos" 5. orr.
- 5 La
- 6 Ig
-
- 7 Al
- 8 As Haur antzerkia. "Xocolat" 6. orr.
- 9 Az Ipuin kontalaria (euskaraz). "Ipuina ez bada. Ametsa izango da" 9. orr.
- 10 Og
- 11 Os
- 12 La Musika eta umorea a capella. "Vocalocuras" 6. orr.
- 13 Ig
-
- 14 Al
- 15 As
- 16 Az Ipuin kontalaria (ingelesez). "The bicycle race" 9. orr.
Az Musika Eskolako ikasleen kontzertua 10. orr.
- 17 Og Erakusketa. "Las cosas de Nicolás" (urtarrilaren 10a bitarte) 4. orr.
- 18 Os Eguberriko haur-lanen erakusketa (urtarrilaren 10a bitarte) 4. orr.
- 19 La Zine musika. "Luces, Música, ¡Acción!" 7. orr.
- 20 Ig Familia zinea "Abominable" 8. orr.
-
- 21 Al
- 22 As Tailerra Tea en la Azotearekin. "Aukeratu zure Eguberriko pertsonaia: Aingerutxoak, Errege Magoak, Olentzero..." 10. orr.
- 23 Az Tailerra Tea en la Azotearekin. "Eguberriko zuhaitza apaindu, habiak, txoriak eta bururatu zaizun gutzia" 10. orr.
- 24 Og
- 25 Os
- 26 La
- 27 Ig
-
- 28 Al
- 29 As Ipuin kontalaria (gaztelaniaz). "Cuentos como escarpas" 9. orr.
- 30 Az Haur antzerkia. "Estás en Babia" 8. orr.
- 31 Og

Azaleko irudia: Suakai "Luces, Música, ¡Acción!"

KULTURA ALORRETIK OSASUN HANDIA OPA DIZUEGU ETA 2021EAN "KULTURA BERTATIK BERTARA" ZUEKIN PARTEKATZEN JARRAI DEZAGULA

Erakusketak



"El dios de los inocentes"

JUAN BONAL FUNDAZIOA.

Enrique Pimoulier-ek eginiko Argazkien Erakusketa

ABENDUAREN 13A BITARTE

620 hurrek ez dute defendatuko dituen inor. ERRUGABEEN JAUNGOIKOA erakusketak Juan Bonal Fundazioaren eta Santako Karitateko Ahizpen lana erakusten du. Hau da Filipinetan desgaitasun desberdinak dituzten pertsonak hartzen dituen zentro bakarra. Hura da euren babeslekua abandonu eta esplotazioaren aurrean.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Batzordea.



"Las cosas de Nicolás"

Latorrien Erakusketa

NICOLÁS NAVALLAS

ABENDUAREN 17TIK URTARRILAREN 10ERA

Martxoaren hasieran, guztiok gure etxean konfinatu behar izan genuen, egoerara egokituko ginen jakiteke. Nikolasek 96 urte betetzear dituela, eta egokitu ez ezik, egoerari buelta eman zion, ilusioz eta gogotsu, lanaz gozatuz egunez egun. Done Jakue karrikako tailerrean ordu anitz eman ditu latorrizko piezen bilduma bat egiten, artisaua izateaz gain, historia asko biltzen duena. Goza gaitezen bere lanaz!

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko Beheko Solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



Eguberriko haur-lanen erakusketa

ABENDUAREN 18TIK URTARRILAREN 10ERA

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko Bigarren Solairuko Erakusketa Aretoa

Laguntzaileak: Otik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa eta Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia: asteartetik larunbatera 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



MUSIKA

"3 en Diálogos"

JOAQUÍN TABOADA TRÍO

**Kontzertu hau Nafarroako
Gobernuak antolatutako
NAFARROAREN EGUNA MUSIKA
JAIALDIA programaren parte da
OSTIRALEAN, ABENDUAK 4**

Musikariak: Joaquín Taboada:
pianoa, akordeoia, jatorrizko
moldaketak; Paula Azcona:
biolontxelo; Daniel Sádaba:
biolina.

"3 en Diálogos" 80ko eta 90eko hamarkadetan gure bizitzan sartu ziren Musika Berri guztiei egindako omenaldia da. Radio 3ren "Diálogos 3" edo M80ren "Música Privada" bezalako irratsaioretan entzun zirenak. Kontzertu honek Michael Nyman, Wim Mertens edo Penguin Café Orchestra bezalako artisten soinu unibertsoan murgilduko gaitu, hiru musikari nafar hauek osatutako hirukote honek egiten dituen birsorketei esker.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 19:00.

Aldez aurreko sarrerak: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €.

Entzunaretoako leihatila:

18:00etatik 18:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Sarrerak Gazte txartelarekin: 5 €.
Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz interneten erosi bada.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernu.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



HAUR ETA FAMILIA ANTZERKIA

"Xocolat"

TEATRO PARAISO

Small Size performing Arts for Early Years europar proiektuaren ekoizpena

ASTEARTEAN, ABENDUAK 8

Antzerkilariak: Rosi García eta Maitane Goñi.

Txokolatea eta bere usain gozoa dira lan honetako protagonistak. Txokolate-fabrikara ikasle ezjakin eta sortzaile baten etorrerak errealitatea eraldatuko du.

Bat-batean dena aldatuko da, txokolatea amets egiteko eta jolasteko probokazio bihurtuta.

Ikusleak: Sendiak eta 3 urtetik gorako haurrak.

Iraupena: 45 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €. Ikuskizunaren egunean 17:00etatik 17:30era egongo da irekita auditorioko leihatila. Ordu horretatik aurrera ezingo da sarrerarik erosi.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea Elkarte (NAS) eta Nafarroako Gobernuak.



MUSIKA (ETA UMOREA) A CAPPELLA

"VocaLocuras"

BVOCAL

LARUNBATEAN, ABENDUAK 12

Interpretatzaileak: Alberto Marco, Fermín Polo, Carlos Marco, Augusto González, Juan Luis García.

"Vocalocuras" Musika, ahotsa, antzerkia, umorea, musikalak eta abar jorratzen dituen ibilbide bikaina eta dibertigarria da. Ikuskizun honetan musika estilo desberdinek harilkatzen dute ibilbide hori, etengabeko gozamen artistikoan.

Ausartzen zara Bohemian Rhapsody bezalako rockaren sekulako klasiko bat gozatzera, inoiz entzun ez duzun bezala? Hunkitu nahi duzu musikaren historiako 20 abesti ahaztezin baino gehiagorekin? Prest al zaude 90 minutuz etengabe barrez lehertzeko? Zorionekoa zu! "Vocalocuras" zeure ikuskizuna da!

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:00.



Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €. Entzunaretoko leihatila 18:00etatik 18:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Sarrerak Gazte txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz interneten erosi bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



ZINE MUSIKA

“Luces, Música, ¡Acción!”

SUAKAI

LARUNBATEAN, ABENDUAK 19

Musikariak: Maddi Arana, biolina; Claudia Oses, biolina eta mandolina; Juan Ignacio Emme, biolontxelo; Iván Carmona, biolontxelo, txirula, duduk, gitarrak eta teklata; Igor Arostegui, perkusio sinfonikoa eta Igor Telletxea, bateria eta tronboia.

Zinemaren emozioa eszenatokira ekarrita, oraingoan zuzeneko soinu-banda originalarekin. Ikuskizun honetan etenik gabeko bidaia bat bizi ahal izanen da zinemaren historiako soinu banda garrantzitsu eta erakargarrietan zehar: Erztunen Jauna, Avatar, Toy Story eta beste asko, guztiak ere milimetrikoki filmetako irudiekin lagunduta.

Muntaia honek, benetako erronka musikalak, soinu inguratzaila erabiltzen du, ikusleek ikuskizunaren baitan daudela sentitzea eraginen duen teknika.

Ikusle guztientzat.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 19:00.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €. Entzunaretoko leihatila 18:00etatik 18:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Sarrerak Gazte txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz interneten erosi bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



HAUR ETA FAMILIA ANTZERKIA

“Estás en Babia”

PRODUCCIONES MAESTRAS

Iruñeko Udalaren 2019ko Arte-sormenari saria

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 30

Interpretatzaileak: Adriana Salvo, Iratxe G. Uriz eta Ángel García Moneo. **Zuzendaria:** Ana Maestrojuán.

Juliak ezin du oreka lortu. Badirudi Julia beti bere munduan bizi dela, Julia izarrei begira egoten da ... Julia ez da despistatua, kontua da beti “Babian dagoela”. Babian zaude! Irudimenari egindako kantua da, gutxien gustatzen zaigun errealitatea eraldatzeko guztiok dugun gaitasunari egindakoa.

Ikusleak: Sendiak eta 5 urtetik gorako haurrak.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko salmenta: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €. Ikuskizunaren egunean 17:00etatik 17:30era egongo da irekita auditorioko leihatila. Ordu horretatik aurrera ezingo da sarrerarik erosi.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernuak.

Zinea



“Abominable”

IGANDEAN, ABENDUAK 20

Yi beste nerabe bat da Shanghaiko hiri erraldoian. Egun batean, yeti gazte bat aurkituko du bere eraikineko teilatuan. Jin eta Peng bere lagun burutsuekin batera, yetiri ihes egiten laguntzea erabakiko du. Yi eta laurak abentura epiko batean murgilduko dira izaki mitikoa bere familiarekin biltzeko, munduko gailurrik garaienean, Everestean.

Ikusle guzientzat. 9 urtetik beherakoak helduek lagunduta joan behar dute.

Iraupena: 97 minutu.

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 3 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Ipuin kontalaria



“Ipuina ez bada. Ametsa izango da”

EVA AZPILIKUETA (euskarazko ipuin kontalaria)

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 9

Txispi abenturazale sutsua da. Munduan zehar dabil ametsak ehizatzen, bere altxorren kutxan sartu eta ipuin bihurtzen ditu. Gaur zure hirira iritsiko da, istorio horietako batzuk ihes egin diotelako. Haiek harrapatzen laguntzen badiozu, kontatuko dizkizue!



“The bicycle race”

HANNAH BERRY (ingelesezko ipuin kontalaria)

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 16

Annie Londonderry, bizikletaz munduari bira eman nahi dion lehen emakumea. Lortuko ote du? Istorio bat ingelesez eta ondoren antzerki-jolasak haur guztiek goza ditzaten.



“Cuentos como escarpías”

SERGIO DE ANDRÉS (gaztelaniazko ipuin kontalaria)

ASTEARTEAN, ABENDUAK 29

Oilo-ipurdia jartzen dizuten ipuin zirraragarriak. Ezinbestekoa da zapia eta hidratazioa ekartzea.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Doako sarrera edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerak ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu.

Gonbidapenak **abenduaren 1etik aurrera** Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera.

Atea Ipuin kontalaria hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Ordua: 18:30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Eguberriko apaingarrien tailerra

Tea en la Azotearekin



Tea en la azotea delakoa Kultura-etxera itzuliko da Gabonetarako sormenezko apaingarriak nola egin irakasteko. Familian egiteko jarduera bikaina. Anima zaitzete zuen sormena garatzera Tearen eskutik!

Irakaslea: Gabriela Barrio (Tea en la Azotea).

EGUBERRIKO PERTSONAIEN TAILERRA

ASTEARTEAN, ABENDUAK 22

Ikusleak: Haurrak eta familiak (gehienbat 4 eta 7 urte bitartekoak). Adinez txikiek heldu batekin egon behar dute.

Ordua: 18:00etatik 20:00etara.

Doako sarrera. 12 laguneko edukiera mugatua.

EGUBERRIKO ZUHAITZERAKO TXORITXO, HABI ETA PINUEN TAILERRA

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 23

Ikusleak: Haurrak eta familiak (gehienbat 4 eta 7 urte bitartekoak). Adinez txikiek heldu batekin egon behar dute.

Ordua: 18:00etatik 20:00etara.

Doako sarrera. 12 laguneko edukiera mugatua.



Izen-emateak: Kultura-etexeko Argibide Bulegoan **abenduaren 1etik aurrera**, asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailez infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea lpuin kontalaria hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Musika Eskola

“Juan Francés de Iribarren”



ZANGOZAKO “JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN” MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN GANBERA-MUSIKAKO KONTZERTUA

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 16

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.